

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

368

Martxoak 1, 2020



- 3** Argazkiak: Inauteri aurrea
- 4-5** Argazkiak: Inauteriak
- 6** Txintxo tabernako inauteriak
- 7** OnBizi
- 8** Kirolak: Endika Diez
- 9** Kirolak: Dani Estrada

- 10** Euskararen hilabetea
- 11** Haurren leihoa / Denbora-pasak
- 12** Gazteen lanak / Bertsoak
- 13** Martxoak 8 - Palmira Dual
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda



Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?

1920ko martxoaren 7an argitaratu zen "El Bidasoa" aldizkariaren 236. zenbakia. "E.R"-ek sinatutako idatzian Irungo hiriak Donostiari egiten dion ekarpena gogoratzen da, hiriak errekonozimendurik jaso gabe egiten duen lana dela aipatuz. "Parentesis político" testuan, berriz, hauteskunde osteko egoera baloratzen da. Jarraian, gobernatzailerak egindako lana eskertu nahiean, gobernatzailerari San Martzialeko urrezko domina ematea eskatzen da. Aldizkariaren ale honetan "Cosas que se pasan en Irun" atala berreskuratzen du Mañuelek fraile eta apaizen jarreraz hitz egiteko.

Kirol kronikan, Real Unioneke Esperanza taldearen aurka jokaturako partiduan lortutako garaipena aipatzen da. Gainera, "Ostikolari"-k sinatutako idatzi batean Donostiako Krossaren xehetasunak azaltzen dira. "Aspectos locales" atalean, berriz, tabako-dendetako ilarak, eguraldi ona eta hirian gertatutako hainbat gertakari laburbiltzen dituen albisteak biltzen dira. "Pot-popurri" tituluarekin Gonzalo Tintorer pianojoleak Irungo Kasinoan eskaini zuen kontzertuaz hitz egiten da. Ondoren, Zuhaitzaren Jaia bezala ezagutzen den ospakizuna aipatzen da, haurrei txikitatik naturarekiko errespetua erakusteko helburua duena.

Azkenik, aldizkariaren hirugarren orrialdean "Momentos de la ciudad" idatziaren hirugarren zatia argitaratzen da, horrela, hiria bisitari baten ikuspuntutik nola ikusten den erakusteko eta hirugarren testu zati honetan Mendibil eta Iparraldeko etorbidearen inguruaz hitz egiten da. Ostean, aldizkariaren zuzendariari idatzitako gutun baten bitartez Adolfo Bienabek "El Bidasoa" aldizkarian bere aurka idatzitako testuak argitaratzen direla salatzen du. "Notas Municipales" atalean udal bilkurako azken erabakiak biltzen dira, "Hace años ..." eta "Noticias" atalarekin zenbakia amaitu aurretik.

G57832: Ramuntxo Trinketea eta aldameneko etxeak Iparraldeko etorbidean, lehen Frantziako etorbidearen izenez ezagutzen zena.

G28371: Zuhaitzaren jaia Irunen.

G61581: Zuhaitzaren Eguneko parte-hartzaileak San Juan Plazan 1973 urtean.



IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Kalderero, iñude eta artzaiek iragarri zuten Inauterien etorrera



Ohiturek ospakizun berriekin b



Fernando Vergara
argazkilaria

Letxumorro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



at egin dute Irungo Inauterietan



Diseinu zerbitzuak eskaintzen dizkizugu, bai online eremuan (web orrialdeen diseinua, bannerak, blogak, micrositeak...) zein offline esparruan (logotipoak, kartelgintza, bisita-txartelak, gonbidapenak...), behar duzuna diseinatzen dugu.

Diseinu grafiko eta web diseinuko estudioa

943 61 94 89 - 645 009 317
www.resttaestudio.es

    @resttaestudio

Restta

ZURETZAKO DISEINATZEN DUGU

- ✓ Enpresa berria
- ✓ Ibilbide luzeko enpresa
- ✓ Ekintzaileak
- ✓ Partikularrak

Inauteriak harrotasunez ospatu dituzte Txintxo tabernan



Jesus Mari Gorrón eta Andone Jimenez senar-emazteek Txintxo tabernako jabeak dira eta abuztuan 8 urte beteko dituzte Azken Portu auzoaren sarreran kokatutako tabernaren buruan. Lan egunetan zehar bezeroen errutina arintzeaz gainera, auzoko bizitzarekin zein Inauteri edo samartzialak bezalako jaiekin bat egitea atsegina dute Txintxo tabernako jabeek. Andone Jimenezek 2020ko Txintxo tabernako Inauterien balorazioa egin du.

Noiztik ospatzen dituzue Inauteriak Txintxo tabernan?

Abuztuan 8 urte beteko ditugu hemen gaudenetik eta lehenengo urtetik ospatu ditugu Inauteriak. Mozorratzea asko gustatzen zaigu, beraz, gu mozorratzeaz gainera, taberna osoa apaintzea erabaki genuen. Gainera, photocall bat montatzen dugu urtero bezeroak gurekin Inauterien parte sentitzeko.

Urtero gai ezberdin bat lantzen duzue?

Bai, urte batetik beste gaia guztiz aldatzen dugu eta guk geuk egiten ditugu gure mozorroak, beraz, oso orginalak izan ohi dira.

Zein izan da aurtengo Inauterietarako aukeratutako gaia?

LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguneko karrozan bihurtu dugu taberna eta Drag Queen bezala mozorratu gara. Oso ondo pasa dugu, baina, egia da, lan asko egiteko mozorro deserosoa dela. Hala ere, asko disfrutatu dugu.

Tabernan eskaintza berezirik prestatu duzue Inauteriei begira?

Ez, zentzu horretan ez, baina, aurten berrikuntza gisa Drag Queen mozorro onenarentzako saria banatu dugu. Izan ere, Inauteriak ospatzeaz gainera, bezeroak gurekin

festaz gozatzea atsegina dugu. Photocall-aren bitartez bezeroei gu bezala mozorratuak egongo balira bezala argazkiak ateratzeko aukera ematen die.

Inauteri garaian jendea tabernara gehiago hurbiltzen da?

Bai, dena dela, gu auzoko taberna bat gara eta egia da Inauterietan jendea hiriaren erdigunean pilatzen dela. Hala ere, Inauterietako desfilea amaitzen denean, jende etxera itzuli aurretik, Txintxotik igarotzea gustatzen zaigu, hemen ere Inauteriak ospatzen direlako. Egia da Inauteriei esker irabazi gehiago izan ditugula hilabete honetan. Gabonak igaro ostean hasten gara Inauterietako apaingarriak prestatu eta ideia garatzen.

Zein izan da tabernan Inauterietako momenturik jendetsuena?

Larunbata, Inauterietako desfilea amaitu ostean.

Inauteriak bezalako data berezietan bezeroen kontsumo ohiturak asko aldatzen dira?

Ez, jendeak betiko berdina eskatzen digu orokorrean. Agian, festa giroan kubata gehiago eskatzen dituzte, baina, gainontzekoa nahiko antzekoa da.

Mozorratutako jende asko hurbiltzen da Txintxo tabernara?

Bai, jendeak mozorratzea atsegina du. Gainera, taberna

“Taberna auzoko jendearen elkargune bihurtzen da”

apainduta egongo dela jakiteak jendea mozorratzera animatzen du.

Zein da urteko beste garai jendetsuena?

Sanmartzialak batez ere. San Martzial eguneko hamaiketakoarekin taberna gainezka izan ohi dugu eta taberna auzoko jendearen elkarkune bihurtzen da. Jaiak aitzaki hartuta, taberna apaintzen dugu beti, kasu honetan ere, gai zehatz bat landuz.

Erraza da urtero taberna apaintzeko ideia berriak topatzea?

Ez da erraza, batez ere sanmartzialetan. Hala ere, eraberritzeko grinak beti momentura arte landu ez ditun gaiak aurrera ateratzen laguntzen digu.

Auzoko taberna bat izanik, bezeroekiko harremana oso hurbila da?

Bai, zortzi urteren ostean, bezeroekin gertuko harremana dugu, gainera, gehiena auzoko jendea delako.

Zein da Txintxo tabernaren berezitasuna?

Janariari dagokionez, nire senarra Extremadurakoa denez, tabernan prestatzen dugun janari guztia guk geuk egiten dugu, Extremadurako errezetak errezetak mantenduz. Pintxoek arrakasta handia izan ohi dute bezeroen artean. Gainera, edariarekin batera, bezeroei pintxo txiki bat emateko ohitura dugu. Hortaz gain, jendearekiko hurbiltasuna lantzea eta auzoko ekintzetan parte hartzen saiatzen gara.

Zein da hurrengo hilabeteetarako plangintza?

Laster samartzialetarako apaingarriak prestatzen hasiko gara. Ideia buruan dugu, beraz, lanean hastea falta zaigu soilik. Gu, horrelakoak gara, gauza bat amaitu bezain laster, hurrengoan pentsatzen hasten gara.

OnBizi konponketa-guneen bitartez bizikleten erabilera areagotzea proposatzen du Nuria Veigak



Argazkia: Estudio Gover

Nuria Veigak OnBizi proiektua martxan jartzea erabaki zuen bere bidaiei esker txirrindin oinarrizko konponketarako guneak ezagutu ostean. Hemen inguruan antzeko zerbitzurik ez zegoenez eta bizikletaren sektorearen gorakada ikusita, aspaldian buruan gordetako ideia aldea apustu egitea erabaki zuen. Negozio ideia honekin Nuria Veigak duela gutxi IrunOn saria jaso du OnBizi proiektuari esker.

Zu zeu txirrinda zalea zara?

Hirian ahal bezain beste erabiltzen saiatzen naiz. Nire burua "bidegorriko neska" bezala deskribatzen dut, ez bait naiz aldapa zalea.

Erraza izan zen proiektuaren bideragarritasuna topatzea?

Berria izan ez arren, goraka doan sektorea dela ikusteak behar nuen bultzada eman zidan. Gainera, egin beharreko hasierako inbertsioa txikia da, egitura gutxi eskatzen baitu. Hasierak gogorrak izan arren, etorkizunean hazten jarraitzea espero dut.

Zertan datza OnBizi zerbitzua?

OnBizi txirrinda konpontzeko guneak dira. Modelo desberdinak daude: puzteko bonbarekin, erremintekin, txirrinda konponketarako zintzilikatze aukerarekin, ... Bizikletei oinarrizko konponketak egiteko pentsatuta dagoen zerbitzua da.

“Bizikletei oinarrizko konponketak egiteko pentsatuta dagoen zerbitzua da”

Irunen duela gutxi konponketa-gune hauek kokatu dira?

Bai, mugikortasun teknikariarekin hitz egiten ostean, 4 eskatu zizkidaten eta, momentuz, 3 dira jarrita daudenak. Guneak pertsonalizatzeko aukera eskaintzen dugu, beraz, Irungoak gorriak dira Irungo logotipoarekin. Momentuz, jende konponketa-guneak erabiltzen hasi dela esan dezakegu eta oso pozgarria da hori ikustea.

Konponketa-guneek kokapenaren arabera ezaugarri edo zerbitzu ezberdinak dituzte?

Bai. Hondarribikoa, adibidez, kostaldean dagoenez, altzairu erdoilgaitzez egina dago. Konponketa-guneak espazio publiko zein pribatuetan kokatzeko aproposak dira eta bezeroaren eskakizunetara egokitzen dugu gune bakoitza.

Zein beste lekuetan ipini dituzue jada OnBizi konponketa-guneak?

Hondarribian, Iruñan, orain Vilanova i la Geltrú jarri behar dituzte, Garbera eta beste merkatal-gune batzuetan, Baztanen, Iberdrola dorrean ... Orain bilera asko ditugu, zerbitzua camping eta gasolindegia bezalako tokietan ipintzeko, izan ere, bezero posibleen taldea oso handia da eta domino efektua gertatzen ari dela ikusi dugu.

Zerbitzu honek bizikletaren erabileraren gorakada lagundu dezake?

Bai, turismo aldetik zein hiriko erabilera. Horrelako puntuek txirrindari edozein momentutan konponketa erraz bat egiteko aukera izango duzula zihurtatzen dizute, behintzat helmugara iritsi ahal izateko.

Zentzu honetan, Europako beste herrialdeetan pausu bat aurretik doaz?

Orokorrean bai. Esaterako, Alemaniako trenbide sareak duela gutxi eskaera handi bat egin du sareko ia geltoki guztietan horrelako guneak jartzeko. Batez ere, Belgika, Alemania, Norvegia eta Polonia bezalako herrialdeak oso

aurreratuak daude alor honetan.

Konponketa-guneen mantenimendu lanetaz arduratzen zarete?

Ez, bezeroak kudeatzen du. Guk azalpenak ematen dizkiegu, baina, mantenimendu lana oso oinarrizkoa da. Egin beharrekoa erremintak euriaren ostean lehor edukitzea eta olio pixkabat botatzea da, besterik gabe.

Zer suposatzen du zuretzat ideak orai dela gutxi IrunOn sariara irabazteak?

Poz handia ematen du horrelako sari bat jasotzeak, bertako errekonozimendu bat izateaz gainera, ideia epaimahaiak ondo baloratzea asko eskertzen da.

Etorkizunean proiektua zabaltzeko asmorik duzu?

Estatu mailako distribuzioa nire esku dago eta, gainera, Frantzia saltzeko aukera dut. Bezero posibleen talde zabala ikusita eta momentura arte izandako arrakastarekin, nahiko erraz saldu daitekeen zerbitzu dela uste dut.

“Belgika, Alemania, Norvegia eta Polonia bezalako herrialdeak oso aurreratutako daude alor honetan”

Endika Díezek udaletxean omenaldia jaso du Espainiako Mahai-Tenis Txapelketa Absolutua irabazi ostean



Endika Díez kirolariari otsailaren 18an omenaldia egin zitzaion Irungo Udaletxean Espainiako Mahai-Tenis Txapelketa Absolutua irabazi ostean. Omenaldian, Jose Antonio Santano alkateaz gainera, udal zinegotzi, Leka Enea mahai-tenis klubeko kide eta jokalariren senideek parte hartu zuten. Hortaz gain, Erreginaren Kopan brontzezko domina lortu zuen emakuezkoen taldearen lana ere goraipatu zen ekitaldian.

Endika Díezek Leka Enea mahai-tenis klubeko jokalaria iruzko domina lortu zuen Granadako Armilla hirian jokatutako Espainiako Txapelketa Absolutuan. Hiriko kirolarien lorpen nagusiak saritzeko ohiturari eutsiz, Irungo Udalak Endika Díezen garaipena ospatzeko ekitaldia antolatu zuen udaletzeko kapitulu-gelan. Jose Antonio Santano Irungo alkateak adierazi zuenez, "azkenaldian kirolak poztasun asko ematen dizkigu Irunen". Omenaldian Díezek San Juan Harri zutabearen erreplika txiki bat jaso zuen bere kirol lorpena garrantzitsuenaren oroigarri gisa. Alkateak gogorarazi zuenez, duela gutxi Bidasoa Atletiko Taldeko Teresa Errandoneak edo Santiagotarrak elkarteko palistek oroigarri berdina jaso dute.

Gasteizen jaio arren, Endika Díezek hainbat urte darantza Irunen bizitzen eta Leka Enea klubean lanean.

Klub irundarreko jokalaria esperientzia zabala du mahai-teniseko Espainia mailako txapelketetan, izan ere, 2012 eta 2015 urteetan zilarrezko domina eskuratu zuen eta 2013., 2014., eta 2016. urteetan, berriz, brontzezko domina. Endika Díezek azaldu bezala, "klubaren laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke niretzat honaino iristea".

Omenaldian zehar, Endika Díezek Leka Enea klubak Irunen daukan instalakuntzen kalitatea goraipatu zuen. "Udalak klubari emandako instalakuntzak izan ezean, ezinezkoa litzateke horrelako emaitzak lortzea", azaldu zuen Espainiako Mahai-Tenis Txapelketa Absolutuko irabazleak. Era berean, Jose Antonio Santano alkateak Leka Enea klubean mahai-tenisean federatuak dauden 80 kirolariak eta 100 eskolarrek egunero egiten duten lana goraipatu zuen, entrenatzaile eta gurasoek kluba aurrera ateratzeko egiten duten lana ahaztu gabe.

Garaipen segida amaigabea

Espainiako Txapelketako lehen faseak gainditu ostean, Endika Díezi Dani Palacios taldekidearen aurka indarrak neurtzea egokitu zitzaion final-laudenean. Leka Enea klubeko kirolariak partidu zirrargarria jokatu zuten, klubean elkarrekin egindako entrenamendu ordu luzeen erakusle garbia izan zena. Final-laudenean Palacios tal-

dekidea garaitu ostean, Endikak azken podiumean leku bat izatea zihurtatzea lortu zuen.

Finalerdian Moises Alvarezen aurka 4-3 irabazi ostean, Carlos Machadoren aurka txapelketako finala jokatzekeo eskuratu zuen jokalaria irundarrak. Machado aurkari gogorra zen Endikarentzako, izan ere, Espainiako txapelketetan hainbat urrezko domin irabazi baititu jokalaria andaluzak. Endika Díezek, ordea, partidu hasiera bikaina jokatu zuen markagailuan 3-0 aurreratuz, baina, aurkariaren erantzun azkar batek markagailua hiru puntura berdintzea eragin zuen. Azkenan, garaipena Endika Díezentzat izan zen eta, horrela, Espainiako Mahai-Tenis Txapelketa Absolutuan bere lehe urrezko domina eskuratu zuen.

Erreginaren Kopan brontzea

Endika Díezi egindako omenaldian, Erreginaren Kopan brontzezko domina eskuratu zuen Leka Enea klubeko talde femeninoak ere aipamen berezia jaso zuen. Jokalaria zuzenean talde kanporatzailean sartu ziren eta sailkapeneko hirugarren posturaino iritsi ziren, ezinezko izan zitzaielako gorago sailkatzea. Maria, Roxana, Jin, Lin eta June jokalaria Sagartzazu margolariaren "Paseos por Irun" liburuaren ale bana jaso zuten udalaren opari gisa.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Dani Estrada, Real Unioneko jokalaria:

“Futbola ez da matematika hutsa”

Real Union taldea play-off postuetatik atera eta sailkapenean gora egiteko borroka etengabea murgilduta dago. Alberto Iturralde entrenatzailearen kargugabetzearen ostean, baliogabetutako gol eta bidean galdutako puntuetatik haratago, taldea akatsak zuzendu eta borrokatzen jarraitzeko asmoa duela azaldu du Dani Estrada jokalaria txuribeltzak.

Nola ikusten duzu taldearen egoera momentu honetan?

Egia esan, azken emaitzak ez dira oso onak izan eta sailkapeneko beheko aldean sartu gara. Dena dela, aurrera jarraitu behar dugula uste dut. Gu izan gara behean sartu garenak eta gu izango gara taldea hortik aterako dugunak. Taldea badugu, beraz, ea astean zehar ondo entrenatzen dugun larunbatean hiru puntuak etxera ekartzeko.

Amorebietaren aurka garaipena lortzea ezinezkoa izan zen?

Partiduaren lehen zatia ez zen oso ona izan eta aldageletara huts eta huts joan ginen. Bigarren zatia hasi eta segituan gola jasotzeak mina egin zigun. 10 edo 15 minutu txar batzuen ostean, ordea, buelta eman genion eta gure aukerak izan genituen, horren erakusle, baliogabetutako gola. Pena bat izan zen, baina, egia da ez zela gure partidurik onena izan.

Etxean jokatzek ez zuen lagundu?

Ez, aurten etxean puntuak ateratzea kostatzen ari zaigu. Orain burua garbitu, ondo entrenatzea eta hurrengo partiduak ondo prestatzea da gure esku dagoena.

Baliogabetutako golak taldearen ametsgaiztoan bihurtu dira azkenaldian?

Hori da, aitzakia izan gabe, aurreko astean Getxon ere gol bat kendu ziguten eta Amorebietaren kontrakoa ere, oraindik ondo ikustke aukerarik izan ez dudan arren, gol legal bat zela dirudi. Hala ere, ez zen partidu on bat izan, beraz, gure akatsak zuzendu eta entrenatzen jarraitzea da gure esku dagoena.

Amorebieta sailkapeneko lehen taldeetako bat denez, aurkari indartsua da?

Amorebietak bere gauzak ondo egiten ditu eta zerbaitegatik daude goian, baina, gu etxean Amorebieta irabazteko gai izan behar gara. Horretarako, partidu hobeak egitea ezinbestekoa da.

Erraza da motibazioa lortzea azken hamabi partiduetan garaipen bakarra lortu ondoren?

Egia da azken partiduetan berdinketa asko izan ditugula eta banan-banan begiratuta, ez dira hain partidu txarrak izan. Lan asko egin ostean, berdinketa lortu eta puntu bakarra eskuratzeak ez du motibazioa laguntzen. Futbola ez da matematika hutsa, partiduak hobeak edo okerragoak izan daitezke, baina, azken finean, puntuak dira sailkapenerako garrantzitsuenak.

Zer hobetu nahiko zenukete hurrengo partiduei begira?

Beti daude hobetu daitezkeen gauzak, bai ofentsiboki bai defentsiboki. Talde bat gara, baina, bakoitzak bere alde onena eman behar du. Puntuak lortzen ez baditugu hobetu beharreko gauza asko daudelako da. Hala ere, puntuak lortu ez izanak ez du esan nahi noizbait gauzak ondo egin ez ditugunik.

Play-off postuetan sartzeak urduritasunasunak azaleratzen ditu?

Egia da momentuko egoera zaila dela, baina, egoerari



Argazkia: Estudio Gover

aurre egiten jakin behar dugu. Lehengo urtean antzeko egoera kudeatu behar izan genuen eta azkenean taldea salbatu genuen. Aurten bukaerara iritsi gabe, lehenago salbatzea espero dugu. Presiopean jokatzek jakin behar da eta, horretarako, talde bateratu bat izatea ezinbestekoa da.

Nola ikusten duzu zuen hurrengo aurkaria?

Valladoliden zelaian dugu gure hurrengo partidua, sailkapeneko goi partean dagoen beste talde baten aurka. Talde gazte eta ona den arren, edonon aurpegia emateko taldea dugula uste dut.

Entrenatzailearen irudia zalantza jartzen da horrelako kasuetan?

Bai, gauzak gaizki daudenean, jokalaria zein entrenatzaile-

leen lana zalantza jarri ohi da, izan ere, gure esku dago ondo entrenatzea eta entrenatzailea da lan hori zuzentzeko ardura duena.

Zure buruari etorkizun luzea ikusten diozu Real Union klubaren barnean?

Orain egoera pertsonalak alde batera utzi eta taldearen etorkizunaren alde begiratzeko unea dela uste dut. Guztio elkarrekin taldea bultzatu behar dugu.

Aurten ere taldeak hirugarren mailarako jaitsiera saihestea lortuko duela uste duzu?

Bai, lana egin behar da, baina, talde on bat dugu atzetik. Gauzak ondo ateratzea eta datorren urtean bigarren B mailan jarraitzea espero dugu.

Antzerkia eta magia izango dira Euskararen Hilabeteko protagonistak



Antzerkia eta magia izango dira Irungo Euskararen Hilabeteko ekintza nagusiak. Irungo Udalak otsailaren 26tik martxoaren 13ra hainbat ekintza antolatu ditu "Euskara, gure altxorra" lelopean. Ekintza horien bitartez haur eta gazteen motibazioan eragiteaz gainera, euskararen aldeko jarrera positiboa sustatu nahi da.

Euskararen Hilabetea Irungo Euskara Sustatzeko Ekintza planaren barnean aurreikusitako ekintzetako bat da. Programan Irungo ikastetxe eta institutuetoako ikasleek parte hartzen dute. Monica Martinez Euskara ordezkariak azaldu duenez, ikuskizunak urtero bezala Amaia Kultur Zentroan egingo dira.

Aurten, guztira, 7.000 ikasle izango dira parte-hartzaileak, Haur Hezkuntzatik hasita DBH-ko 4. mailara arteko 3 eta 16 urte bitarteko haurrak. Monica Martinezen hitzetan, "ikuskitunak adin tarte bakoitzera egokitu ditugu". Euskararen Hilabeteko lehen ekintza, Haur Hezkuntzako ikasleentzat otsailaren 26, 27 eta 28an zehar eskaintako Asier Kidam magoaren "Aroa eta mirariak" ikuskizuna

izan zen". Umorea eta soinu-banda zaindu baten bitartez, haurrek mirari txikiak bizitzeko aukera izan zuten.

Martxoak 5 eta 6

Martxoaren 5ean eta 6ean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek "Jon Beldurgabea" ipuinean oinarritutako antzezlanak ikusiko dute. Antzezlanean beldurra zer den ezagutu nahi duen Jon gaztearen abenturak biziko dituzte ikasleek. Grimm anaien klasiko bat den ipuinaren bitartez haurrei beldurrik gabe adorea ezagutzeko delako helarazi nahi zaie.

Martxoak 11

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek "Mari eta gaileta

fabrika" antzezlanaz gozatzeko aukera izango dute martxoaren 11ean. Eidabek eskaintako antzezlanean Lukak amonari gailetak prestatuko dizkio. Gailetek, ordea, hain gozoak ez diren amonaren iraganeko oroitzapenak piztuko dituzte.

Martxoak 13

Azkenik, martxoaren 13an "Zoaz pake santuan" antzezlanak ikusiko dute DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek. Ikuskizunean Andreak senarra pozoituko du eta, gizonari egindakoa aitortu ostean, giltzapeturi dagoen etxe barruan Andreari aurreikusitako plana hankaz gora jarriko zaio.

Bi Irunero berezi

Monica Martinez Euskara ordezkariak azaldu duenez, "ikasleen sormena erakusteko, aurten ere Iruneroren bi ale berezi argitaratuko dira". Lehen zenbakian Haur Hezkuntzako ikasleen lanez gain, LH1, LH2M LH3 eta LH4ko ikasleen lanak jasoko dira. Bigarren aldizkari batean, berriz, LH5, LH6 eta DBHko ikasleen lanak bilduko dira. Irunero aldizkariaren bi ale bereziak ikastetxe eta institutuetoan banatuko dira. Hortaz gain, aldizkariak Euskara Arloaren webgunean ikusgai egongo dira.

Mintzodromo gaztea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleek Mintzodromo gaztean parte hartzeko aukera izango dute. Arantza Zulet Normalizaziorako Teknikariak azaldu duenez, "300 ikasleek izena eman dute Mintzodromo Gaztean". Normalizaziorako Teknikariak azpimarratu duenez, ekintzak izandako arrakasta ikusita, egun bakarrean egin beharrean, Mintzodromo bi egunetan egin beharko da. Arantza Zuletek gaineratu duenez, Mintzodromo Gaztea institutuetoan oso harrera ona izan ohi duen ekintza da, nahiz eta batzuetan ikastetxeen programazioan txertatzea zaila izaten den.

"Ikuskizunak adin tarte bakoitzera egokitu ditugu"

Monica Martinez,
Euskara ordezkaria

"300 ikasleek izena eman dute Mintzodromo Gaztean"

Arantza Zulet,
Normalizaziorako Teknikaria

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Merkatu Auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



Eguzkitza HH



EGUZKITZA ESKOLA HAUR HEZKUNTZAKO 5 urtekoen lana

Hona hemen 5 urteko ikasleek egindako robotak. Birziklapena proiektuaren barruan zakarretara botatzen ditugun gauzekin eginak. Sekulako arrakasta izan dituzte eta eskolan ditugu erakusgai.

Denbora-pasak

Zazpi hitz: Sukaldean

Q	B	T	B	O	I	B	X	I	L	O	A	A
S	R	I	N	I	G	A	T	R	A	Z	A	E
G	A	S	I	S	M	H	N	E	A	R	T	I
A	R	R	N	C	X	D	A	A	E	R	A	A
Z	T	G	D	Z	T	A	G	A	T	S	O	Z
S	M	H	I	E	G	S	R	I	U	E	A	A
Z	P	A	A	Ñ	X	A	A	Z	L	E	D	R
A	L	M	E	T	L	K	E	T	I	N	A	S
R	A	Z	D	I	E	C	A	A	A	C	N	G
O	T	O	O	A	C	E	E	L	K	T	S	L
L	E	G	Z	P	U	B	O	T	Z	A	O	A
U	R	Z	K	K	Q	A	K	Z	O	R	D	P
T	O	Z	P	L	O	L	A	G	H	A	Z	Z

			4			1		
6				9				
9	4	7		1		2		
	9		1	7	6		5	3
5	6		9		8			
			5	3	2			
		2	3					
				5		9	1	
					1		4	2

Sardexka, plater, labe, hozkailu, zartagin, gatz, goilara



MOZORROAK

Doinua: Amodioa gauza tristea
Egilea: Manu Goiogana Bengoetxea

- | | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1)
Hedabideek ez dutenean inpartzialki jarduten bat aspertzen da lehenespenez egi laurdenak entzuten. Saia gaitezen lerroburuei errimekin erantzuten adibideok nahiz eta diren laburpenaren laburpen, ikus dezagun egiak nola mozorrotzen dizkiguten.</p> | <p>5)
Martxoak 8 heltzen denean Jaurilaritza telebistan, mozorro more bat agerian lehenengo begi kliskan, gutxi behar dute abiatzeko mugimendu feministan baina martxoak bederatzian guztia doa irristan txapa moreak kaxoi barruan eta ipurdiak bistan.</p> |
| <p>2)
Gune berdeen suntsitzaile den asmo defizitario AHTak gizendu ditu hamaika enpresario. Obretan zenbat lur mugimendu eta CO2 jario, txikizioa bilakatu da urteetan usadio, baina amatxok, mozorrotzean, tren berdea dela dio.</p> | <p>6)
Bidasoako bi herrietan jarrita festetara so emakumeen eskubideek urtero zenbat eraso! Berdintasunez errespetua ezin eman eta jaso, nola bihurtu daitekeen inork azalduko dit akaso eskubideen urraketa bat bizikidetza arazo.</p> |
| <p>3)
Ipiniz gero Gipuzkoako erraustegira begira mende bateko zor publikoa gure bizkar erori da. Europan ixten doazenean hemen berriak desira Euren hitzetan kutsadurarik ez du sortzen, baina tira, hitzok egia mozorrotzeko ke grisak baino ez dira!</p> | <p>7)
Euskal Herria higitzen doaz Espainia zein Frantzia; Vuelta zein Tourrak muga non dugun aspaldi dute ahantzia, Eurokopa bat ere badator baloiari itsatsia, murriztuz doa atzerriraino egin behar den distantzia... beste konkista kultural bat da normaltasunez jantzita.</p> |
| <p>4)
Tamalez orain Zaldibar ere mapan kokatu digute, bi langile hil, giro kutsatu, nahita sortutako sute,.. gai toxikoen kea arnasten utzi izanaren truke elkartu eta erantzuleen aurka jo behar genuke utzikeria onartezin bat lan-istripuz jantzi dute.</p> | <p>8)
Zaldunbordako afera ere hobe dugu ez atzendu Mega Outlet-ak ez duen arren ez logika, ez sostengu zenbait lanpostu prekarioen aitzakia nabarmendu eta baimenik ez duten arren asmoa nahi da mantendu, denda txikiak desagertzea mozorroak estaltzen du!</p> |

Irungo La Salle LH6



Gureak-en desgaitasuna duten pertsonak lan egiten dute. Sektore desberdinak daude:

INDUSTRIA: Kableak prozesatzen dituzte, elektronikak, operadore logistikoa, plastiko injekzioa eta muntaia eta eraldaketak egiten dituzte.

ZERBITZUAK: Elikadura eta osasuna, lorezaintza, garbiketa eta ikuztegia, saltokien kudeaketa...

MARKETING: Harremanetarako marketing-a, eraldaketa digitala, E-commerce eta BPO egiten dute.

ITINERARI: Prestakuntza, orientazioa, enpresentzako enplegu zerbitzuak, zerbitzu okupazionala eta pauso berriak egiten dituzte.

Gure kasuan, 2019ko azaroaren 3an, Irunen dagoen Gureak-eko industria tailerrera joan ginen. Han, lau pertsona ezagutu genituen: Iker, Marina, Fran eta Ana. Hauek desgaitasuna dute. Tailerra bisitatzen bukatu genuenean, haiekin hitz egiten egon ginen. Beraien lanarekin harrিতa geratu ginen. Oso gustura egon ginen eta orain beste modu batez ikusten ditugu gauzak. Askotan pentsatzen dugu desgaitasuna duten pertsonen gauzak gu baino okerrago egiten dituztela, baina ia beti gezurra da esaten duguna. Denok eskubideak ditugu zerbait lortzeko eta horretan esfortzua jartzen badugu, azkenean lortuko dugu.

Adriana Cienfuegos, Iker Gómez, Iker González (La Salle Irún)



Palmira Dual, Sim Romi Gipuzkoaqé elkarteko ordezkaria:

“Emakumeak ijito familien oinarritzko zutabea dira”



Palmira Dual 23 urteko emakume ijito irundarra da. Bere burua ingurukoak lagundu eta etengabe ikasteko grina duen pertsona bezala definitzen du. Palmira Sim Romi Gipuzkoaqé elkarte irundarreko kidea da eta martxoaren 8ra begira, emakume ijituaren inguruan gizartean zabalduko uste okerrak ezeztatu nahi ditu.

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzea beharrezkoa iruditzen zaizu?

Bai, noski, oso garrantzitsua iruditzen zait. Emakumeak egunero desberdintasunen kontra borrokatzen dugu, baina, martxoaren 8an denak elkarrekin kalera ateratzen gara. Egun horrek gure bizipenak eta helburuak elkartzea ahalbidetzen digu.

Zein da emakumeen rola ijitu familietan?

Familiaren oinarritzko zutabea direla esan dezakegu, hau da, aldaketaren motorra. Izan ere, ijitu herrian gertatzen diren aldaketa guztiak emakumei esker gertatzen dira. Arazoak sortzen direnean haiek dira aholku emaile nagusiak, belaunaldi batetik bestera igarotako bizipenetan oi-

narritutako errekurtsio asko dauzkatelako.

Azken hamarkadetan zehar emakumearen rola asko aldatu da?

Bai, asko aldatu da gu Euskal Herrira duela 600 urte baino gehiago iritsi ginelako. Honi esker, ijito herriko semeek eskoletan ikasteko aukera izan dute eta, horrek, baliabide asko eman dizkie, emakumeen kasuan askatasuna eta ahulduntzea posible egiteko.

Emakume ijitoen artean, gizarteko beste sektoreetan bezala, ahulduntzea gertatu da?

Askok gainera. Eskoletan gertatutako inklusioari esker gure ezagutzak eta heziketa errotik aldatu dira. Ondorioz, orain, lanpostu, ikastetxe eta unibertsitateetan gaude. Horrela, helduagoak diren senideei gure ezagutza berriak helarazten dizkiegu.

Oraindik gizartean ijitoekin loturiko aurreiritzi asko daudela nabaritzen duzu?

Itxura fisikoarekin lotuta aurreiritzi asko daude. Jantzeko era edo lanpostuarekin lotuta daude asko eta horren arabera jendea ijitoa zaren edo ez epaitzeko ohitura du. Gainera, ijito hitza aurreiritzi negatiboekin lotu ohi da beti. Pentsaera alda-

keta gertatzeko ezinbestekoa da bi aldeak gauzak aldatzeko prest egotea.

Zein eragin dute aurreiritziak zure eguneroko bizitzan?

Batez ere, jendea ezagutzerakoan, ijitoa zarela aipatzea ezinbesteko dela dirudi. Azalaren kolorearengatik jendeak epaitzen nau eta nire jatorria zalantzan jartzen du. Horrela, ijitoa zarela esateko portaera negatibo bat izan behar duzula dirudi, onak diren ijitoak existituko ez balira bezala. Gizarteak, ondorioz, gauzak etengabe frogatzea eskatzen digu.

Askotan ijitoen artean matxismo zantzuak ikusten ditu jendeak. Benetan horrelakoa da?

Ijitoen feminismoa eta feminismo “txuria” alderatzea ezinezkoa dela uste dut. Ijitoen feminismoaren lehentasunetako bat emakumei ikasteko aukera ematea da, beste feminismo mota baten helburua soldata berdintasuna izan daitekeen bitartean. Gu bakarrik ez gara matxistak, gizarte guztia da.

Feminismoa edo berdintasuna bezalako baloreak etxean landu dituzu?

Bai, emakume batek etxean bere ahulduntzea erakusten duenean familia osatzen duten gizonek emakumearen jarrera onartzen dute, izan ere, emakumearen eta

familiarentzako etorkizun onena bilatzen baitute.

Emakume ijito eta beste edozein emakumeren artean desberdintasunik ikusten duzu egun?

Kulturalki desberdintasun handiak daude oinarriarengatik eta feminismo ijitoa eta feminismo txuriaren abiapuntua ez da berdina. Indibidualki, gainera, pertsona bakoitzak bizipen ezberdinak izan ditu eta bakoitzak ahulduntzeko jarraitzen duen prozesua ezberdina da.

Oraindik lan asko egiteko dago?

Azken finean, borroka bat da eta pixkanaka bagoaz. Denak elkarrekin borrokatuz gero, noizbait, erabateko berdintasuna lortzea posible izango dela uste dut. Horrela, kaleko egoera aldatzea ezinbestekoa iruditzen zait. Kalean emakumeekiko errespetu falta izugarriak daude eta ez da bidezkoa kalera beldurrez atera behar izatea. Emakumeek ere kaleko askatasuna izan behar dugu.

Nola ospatuko duzu 2020ko martxoaren 8a?

Ni Sim Romi Gipuzkoaqé elkarteko kidea naiz eta gauza asko egiten ditugu. Martxoaren 8rako Deuston hitzaldi bat emateko asmoa dugu “Romani Erresistentzia” tituluarekin.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Hip Hop Eguna martxoaren 7an

Martxoaren 7an Hip Hop Eguna antolatuko da Irunen. Tailerrak, erakustaldiak, kontzertuak, ... antolatuko dira egun horretarako. Ekintzak goizeko 12:00etan hasiko dira eta gaueko 21:30ak arte hainbat ekintza egingo dira Zabaltza plazan. Hip Hop eguna 12 eta 25 urte arteko gazteei zuzendutako ekintza da.

Izen-ematea: WhatsApp bidez (690 706 471 zenbakian) edo egunean bertan 15 minutu lehenago.

Ordutegi zehaztua:

12:00etatik 14:00etara DJ Lea
 18:00etatik 18:55etara Shintoma kontzertua
 19:15-20:00 Vittersweet kontzertua
 20:05-20:20 Beatboxeta Breakdance erakustaldiak
 20:30-21:30 Sara Socas + Erika 2 Santos + DJ Cot

2020ko Mikro-mezu lehiaketa

Leloa: "Kontaguzuz nolako esperientzia duzun kontsumoarekin..."

Epea: martxoak 6.

Norentzat: 10-17 urte arteko gazteenzat.

1. kategoria: Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetakako ikasleak eta DBHko 1. mailakoak.

Saria: 2 tablet Samsung Galaxy, hizkuntza bakoitzeko bana.

2. kategoria: DBHko 2., 3. eta 4. mailetakako ikasleak.

Saria: 2 ordenagailu eramangarri, hizkuntza bakoitzeko bana.

Pentsatu eta ekin, euskaraz edo erdaraz, 400 karakter gehienez eta parte hartu!

Lanak bidaltzeko: omic@irun.org posta elektronikokoan edo 673 31 85 90 zenbakira WhatsApp bidez.

Giza Eskubideen 18. Zinemaldia

Egunak: 2020ko apirilaren 23tik 30era.

Tokia: Victoria Eugenia Antzokian.

Epaimahaikide izan nahi duzu?

8 eta 30 urte artean badituzu hauxe da zure aukera.

Epaimahaikide izateak EHU, Deustu eta Mondragon Unibertsitateetarako ECTS kredituak lortzeko aukera emango dizu.

Izena emateko epea: Matxoak 31.



Gazte Txartelaren 2020. urteko pack-a eskuragarri dago jada

Gazte-txartelaren 2020ko pack-a eskuragarri dago jada. Bertan, gazteentzat presatutako jarduera interesgarri ugari proposatzen dira: aisialdia, kultura eta kirolarekin lotutako ekintzak. Gazte Txartelak 2020. urteaz gozatzeko abantailak eskaintzen dizkizu, diru gutxiago gastatuta.

Lehenengoz erabiltzen duzunean, zure txartelean aurkituko duzun EYC zenbakia eskatuko dizu aplikazioak.

Deskargatu aplikazioa zure mugikorrean!



Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
 (atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
 943 63 93 01

Martxoak

4

La Caixaren "En Forma" tailerra

Zer: Asteazkenetan ekainera arte.

Non: Anaka-Puiana adineko pertsonentzako Udal Gune Soziala.

Ordua: 16:00etatik 17:00etara.

Sarrera: Librea, tokiak bete arte.

Oharra: 60 urte baino gehiago dauzkaten pertsonen zuzendua.

4

Informazio jardunaldia

Zer: Leire Zubiturren eskutik Txingudiko Zerbitzuen fakturako aldaketak azaltzeko.

Non: Palmera Montero Gunean.

Ordua: 18:00etan.

Prezioa: Sarrera librea.

5

XI. Komunikazio Jardunaldia

Zer: Irungo Burdinbidearen inguruan.

Non: Ficoba.

Orduategia: 8:45etatik 14:30etara.

Sarrerak: Doako sarrera aldeaz aurretik izena emanda, lekuak agortu arte.

Salmenta: Email bidez jornadaffccirun@hotmail.com

Antolatzailea: Irungo Hiritar Foroa.



Denborapasen emaitzak

Q	B	T	D	O	I	B	X	I	L	O	A	A
E	R	I	N	I	S	A	T	R	A	Z	W	E
C	A	S	I	S	M	H	N	E	A	R	T	I
A	R	R	N	C	X	D	A	A	E	R	A	A
Z	T	G	O	Z	I	A	G	A	T	S	O	Z
S	M	H	I	F	G	S	B	I	U	E	F	A
Z	F	A	A	X	A	A	Z	I	E	O	R	
A	L	H	E	T	L	K	E	T	I	N	A	S
R	A	Z	D	I	E	C	A	A	C	N	G	
O	T	O	A	C	E	E	L	T	S	L		
L	E	L	Z	P	U	H	O	T	Z	A	O	A
U	B	Z	K	K	O	R	Z	O	R	D	P	
I	D	Z	P	L	O	A	H	A	Z	Z		

3	8	5	4	2	7	1	6	9
6	2	1	8	9	5	4	3	7
9	4	7	6	1	3	2	8	5
2	9	4	1	7	6	8	5	3
5	6	3	8	4	8	7	2	1
1	7	8	6	3	2	6	9	4
4	1	2	9	8	9	5	7	6
7	3	8	2	5	4	9	1	0
8	5	9	7	6	1	3	4	2

6

Dokumentala: "Sua irabazi arte"

Zer: Aurkene Ariza eta Mikel Fuentesen dokumentala Dokulrun zikloaren barnean.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Luis Marianoko Turismo Bulegoan lortu daitezke.

7

Antzerkia: Copenhague

Zer: Emilio Gutierrez, Malena Gutierrez eta Carlos Hipolito aktoreen eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 17,00 euro eta murriztua 12,75 euro.

Salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan eta Amaia Kultur Zentroko leihatilan.

14

Zinema emanaldia: "Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa"

Zer: Komunikazioaren garapenak gizartean dauzkan ondorioak islatzen dituen emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Prezioa: Sarrera orokorra 7,75 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan eta antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

15

Ganbera Zikloa Ricardo Requejo: Akordeoia

Zer: Iñaki Díeguezzen musika emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 4,40 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan eta antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

San Valentín eta Inauteriak izan dira otsaileko hilabeteen protagonistak Caser Residencialesen



Otsaila ekintza bereziz betetako hilabetea izan da Caser Residencialesen. Ohiko tailer eta jarduez gainera, otsaileko data bereziak ospatzeko jardunaldiak antolatu ziren Caser Residencialesek Anaka eta Betharramen dauzkan egoitzetan.

Lehen ospakizun bereziak otsailaren 14aren inguruan hasi ziren San Valentín eguna ospatzeko. Maiteminduen eguna ez zen oharkabean igaro, izan ere, egoitzetan eskulan tailer ezberdinak prestatu zituzten. Tailer horietan egoilarrek sortutako eskulanekin egoitza apaintzeaz gainera, Caser Residencial zentroak maitasunez bete ziren.

Eskulanetan, bihotzekin apaindutako postal-txartelak eta egoitzarako apaingarriak egiteko aukera eman zitzaizen egoiliarrei. Hortaz gain, maitasunaz gozatzeko, bihotz formako gailetak egiteko tailerlean parte hartu zuten Caser egoitzetako erabiltzaileek.

Otsaileko hilabete hurrengo hitzordu garrantzitsua Inauteriak izan ziren. Inauteriak ospatzeko egoitza apaintzeko tailerrak antolatu ziren berriro ere, horrela, egoitzako korridoreetan barrena umore ona eta festa giroa zabaltzeko. Gainera, sukaldaritza tailerrak eta joko ezberdinak antolatu ziren ere Inauterien inguruan. Anakako egoitzan, adibidez, adineko pertsonentzako mozo-

roak eskuz egin ziren. Inauterietako ospakizun egunak musikaz giroturik egon ziren. Egoilarrez gainera, Anaka eta Betharram egoitzeko langileen festarekin bat egin zuten, haien mozorroen bitartez adineko pertsonekin batera urteko egun berezi hauetaz gozatzeko.

Ohikoa den bezala, otsaileko hilabete zehar, urteko gainontzeko hilabeteetan zehar gertatu ohi den bezala, eskualdeko elkarte eta kolaboratzaile ezberdinen bisita jaso zuten Anaka eta Betharram egoitzetako adineko pertsonen. Horrela, otsaileko hilabete Nagusilan abesbatza, beste zenbait musikari eta eskoletako ikasleak igaro dira bertatik.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM